

Funtsezko baliabideak:

funtsezkoak dira enpresa batek bere balio-proposamena bete dezan, bezeroekin eraginkortasunez elkarreragin dezan, harreman iraunkorrak izan ditzan eta diru-sarrerak eraginkortasunez sor ditzan.

1. Baliabide fisikoak:

Enpresaren funtzionamendurako beharrezkoak diren aktibo ukigarriak dira, hala nola azpiegitura, ekipoak, erremintak, teknologia eta edozein motatako ondasun fisikoa. Ekipo informatikoak (ordenagailuak, inprimagailuak, telefonoak), software-lizentziak (bezeroak kudeatzeko, analitika, etab.), eta lineako ordainketa-sistemak.

2. Baliabide intelektualak:

Enpresari balioa gehitzen dioten aktibo ukiezinak dira, hala nola jabetza intelektual, marka, ezagutzak, patenteak, garatutako softwarea, datuak eta enpresaren harremanak. Software eta plataforma teknologikoa: Hortz-protesi klinikak eta laborategiak konektatzen dituen app-a funtsezko baliabide intelektual da. Etengabe babestu eta garatu behar den aktiboa da.

Datu-baseak: Eskaerekin, erabiltzaileen lehentasunekin eta transakzioen historialarekin lotutako datuak, zerbitzua hobetzeko eta erabakiak hartzeko erabil daitezkeenak.

Marka eta ospea: Enpresak marka fidagarri eta ezagun bat sortzen badu hortz-sektorean, aktibo hori funtsezko baliabidea izan daiteke bezero gehiago erakartzeko.

3. Giza baliabideak:

Software-garatzailen talde bat, app-a eraiki eta mantentzeko, baita diseinuko langileak ere, erabiltzaile-esperientzia lagunkoia ziurtatzeko.

Salmenta eta marketineko profesionalak, aplikazioa hortz-kliniketara eta laborategietara sustatzen dutenak, eta bezeroekiko harremanak kudeatzen dituztenak.

Bezeroari arreta emateko langileak, plataformaren erabiltzaileei lineako laguntza eskaintzeko, eskaerekin eta zerbitzuekin lotutako zalantzak edo arazoak konponduz.

